

Euskararen plangintza

Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (eta X)

... Oraintxe, bai, oraintxe benetan ez daukagu astirik beste itaun bakar baterako baino. Azken itauna, beraz, Gabon!

—Hor esan dituzuen gauzak garrantzi handikoak dira zalantzarik gabe. Eta euskararen plangintzaren barruan hainbat milioi gastatzen dira irakaskuntzan, euskara irakasten: eskolatan, irakasleak (EIMA programa dela eta) alfabetatzen eta helduak eskalduntzen; milioi asko doaz eskal telebistan ere... Ez dut esan nahi inolara beste nahikoa denik!

—Minutu bat besterik ez daukagu gaurkoa amaitzeko. Egin ezazu, mesedez, zeure galdera!

—Nere kezka, eta beste askorena, da, kalean eta lagunartean eta familian, eta azokan, etab. ez dela lehen baino gehiago hitz egiten euskaraz. Gauza bat da zenbat eskaldun dagoen irakasteko gogotan; gauza bat zenbat lagun dabilen euskara ikasten, eta zenbatek ikatsen duen benetan. Baina euskara erabili, nik uste dut lehen baino gehiago ez dela erabiltzen; eta azterketa soziologikoez diotenez, Gipuzkoan bertan euskaraz dakitenen erdiek egiten dute hitz euskaraz. Zertarako balio du orduan euskararen alde egoteak eta euskara ikasteak? Zuek uste duzue euskararen aldeko politika ondo doala, azken urte hauetan euskararen erabilpena zabaltzea lortu ez baldin badu? Erantzun, mesedez!

Hizkuntzaren —gure honetan, euskararen— normalkuntzak hainbat alderdi ditu: euskarari berari dagokiona (batasuna eta estandarizazioa) dago, batetik; lege eta instituzio linguistikoei dagokiena dago, bestetik. Euskararen normalkuntzarako bi

baldintza nagusi horiek dira, jakina. Bien artean dago normalkuntza sozio-kulturala: hau da, gizarteko eta kulturako sail eta maila guztietan euskara normaltzea. Normalkuntza sozio-kultural honetaz diharduela uste dut itaungilea. Utz ditza-gun, beraz, oraingoan beste bi alderdiak.

Euskararen normalkuntza soziaziala eta kulturazkoaren plangintza, ordea, ikuspegi nahiko ezberdinez egin daiteke, eta egin ohi da. Jakin behar da zein den erabat baztertzekoa eta ukatzekoa, zein den desegokia, eta zein den egokia.

Funtsean lau ikuspuntutatik —eta lau estrategia ezberdinez— planifika daiteke euskararen normalkuntza sozio-kulturala:

1. Euskara **erakutsi**... Toponimikoetan, kamio-seinaletan, kale-izenetan, enpresa —eta erakunde— izenetan euskara erabada erakutsi nahi da; agian erdarari izan propio bitxiak emateko eta kamio-bazterretan ulertezinezko formulak agertzeko erabiltzen da euskara; baina horrek ez dio axola, euskara ikusi egingo bada; helburua da euskaldunek eta kanpokoek **ikustea**, eta horretarako Euskal Herria euskararen erakustoki bihurtzea ahal den neurrian; helburu horixe daukate azken batez, udaletxeetan edo bestelako erakundeetan egiten diren akta ofizialen itzulpenak, gero balio juridikorik ez dutenak eta inork ez erabiliko ez irakurriko ez dituenak.

2. Euskara **irakatsi**... Ikuspegi honetatik funtsezko ahalegina euskara irakastean ipintzen da: ikastolan, eskolan eta irakaskuntza osoan; alfabetatzearen eta eskalduntzearen bidez. Ahal den eta lagun gehienek euskara **ikastea** lortu behar da, eta plangintzaren pisurik handiena hori lortzea doa.

3. Euskaraz **adierazi**... Administrazio publikoan eta pribatuan, zerbitzu sozialetan, komunikabideetan (prentsan, irratan, telebistan, zineman, etab.), kulturetzan (literaturan, antzerkian, liburugintzan, etab.) edozein gai adieraztea («adieraztea») da hizkuntza politika horren helburua. Gero eta «zerbitzu» kultural eta sozial gehiago euskaraz eskaintzea da ikuspegi horren oinarria, euskaldunek beren hizkuntzan euskaraz «**aditzeko**» (ikusteko, entzuteko, hartzeko...) aukera eduki dezaten.

4. Euskaraz **eragin**... Azkenik, laugarren ikuspegi, euskararen normalkuntzaren plangintzarena, hauxe da: ahal den eta herritar gehienek euskaraz eragitea, egin eraztea, eguneroko bizitzan, gizartean, lanean, norberaren kultur alorrean eta mailan. Herriak euskaraz **egitea** da ikuspuntu nagusia.

Agertu ditugun lau ikuspegi horietan, erraz ikusi ditu edonork lau aditz; erakutsi, irakatsi, adierazi, eragin... Horieta beti nabarmentzen da, plangintza egiten duen eta goi-politika aurrera daraman administrazio publikoaren ekimena eta lehenatasuna. Herriak ikusi, ikasi, aditu, egin egiten du euskara. Badirudi eskale eta hartzaile hutsa dela herria.

Hala ere, laugarren ikuspegiaren herria **egile** bihurtu da: subjektu bihurtu da nolabait. Berak egin behar du euskaraz... Horretan datza euskararen normalkuntza. Orduan lehenengo aditzen lekua beste hauek hartzen dute: **irakurri, idatzi, erantzun**... Horieta konkretatzen da herri euskara-gilearen subjektutasuna eta ekimena. Aurreroko **ikusi, ikasi, aditu** eta... **egin** aditez, pareko aditzek adierazten duten kausaren ondorioa agertzen dute bakarrik.

Aditz berri hauek ez daukate beren aurretik aditz faktitibo edo eragilerik; beraiek dira eragile: **irakurri, idatzi, erantzun**.

Ikuspegi horretatik, bada, herri euskara-gilea euskararen irakurle, idazle eta erantzule bihurtzea da euskararen plangintzaren helburuaren funtsa.

Erantzule, ez bakarrik herria euskaraz mintzatuz inguruko euskaraz «entzun eraziko» delako, eta bai benetan herria bera bihurtuko delako euskararen plangintzaren arduradun eta protagonista: herritar bakoitzak jabetu behar duelako bere erantzukizun pertsonal, sozial eta nazionalaz, euskararen defentsari eta berreskurapenari begira. Erantzukizun hori aitortzea eta erantzuletasun hori suspertzea jo behar du, orduan, euskararen normalkuntzarako plangintzak.

Horrela, lehen aipaturiko plangintzaren ikuspegi ezberdinek (lehenak ez, erabat motza delako) bestelako dinamika hartuko dute, plangintza oso baten alderdi diren neurrian: hau da, herria **egile** izatetik **eragile** izatera, **aditzaile** izatetik **adierazle** izatera, **ikasle** izatetik **irakasle** izatera igaroko da euskararen berreskurapenerako plangintza: herriak subjektu eta protagonista izan behar du euskararen berreskurapen-bidean; hori sustatzea eta areagotzea da administrazio publikoaren eginkizun funtsezkoenetako bat.

Normalkuntzaren **eragile** izateak ez du esan nahi administrazioaren edo talde teknikoaren lekua hartu behar duenik, baina bai bere mobilizazioaren, autoeraketaren eta koordinazioaren bidez etengabe bultzatu behar duela aurrera euskararen normalkuntzarako plangintza eta politika, era kritikoz eta esidoroia agertzen dute bakarrik.

adierazle izateak zera erakusten du: kultura modernoan euskara irekitzen ari den bideak herriak beretu eta zuzendu beharra, batetik, bulegoko euskara artifiziala bihurtuko ez bada; baina batez ere, herria euskara moderno biziaren eta ugariaren sortzaile izatea, herriaren kultura bizi osoa «adieraziko» duena; herriaren adierazpide edo espresio-bide izan behar du euskaraz. Azkenik, plangintzaren barruan herria **irakasle** izateak zera esan nahi du: euskararen irakaskuntzan herri-pedagogia landu behar dela eta herritar bakoitza inplikatu inguruko euskara irakasten.

Hitz-joko astun samarrez adierazi den guzti hori beste hitz bakar eta oso erraz adierazi ohi da, euskararen plangintzaren helburuaren ikuspegi egokiena eta jatorrena ematean: Euskararen **erabilpena**... Erabilpenaren neurriak ematen du euskararen berreskurapenaren neurria (eta ez euskara **ikusi** ahal izateak, euskara lagun askok **ikasteak**, edota euskara komunikabideetan, liburutan, administrazioan herriari **eskaintzeak**; bigarren mailako erizpideak besterik ez dira horiek).

Hain zuzen, eta berriro lehengo hitz-jokoari helduz, «ibili/erabili» aditz bikotean herria bera gertatzen da bien subjektua, lehengo subjektu-objektuen arteko dialektika gaindituz. Herria bera euskararen bidetik ibiltzen den arabera, euskara erabili egiten du; eta euskara erabiltzean ibiltzen du euskararen berreskurapenaren bidea.

Azken batez, euskara **erabiltzea**, bizitza pertsonal, sozial eta kulturean euskaraz baliatzea, **euskaraz bizitzea** da: normalkuntzaren eta plangintzaren goiburua!

Paulo AGIRREBALTZATEGI

